

# GETXOKO ONDAREA ETA TOPONIMIA



**Unitate didaktikoak**  
BIGARREN HEZKUNTZA

## **TOPONIMIA**



**EGILEA** Itziar de la Encina-Bizarra Lepoan Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:** Getxoko Udala-Euskara Zerbitzua

**ILUSTRAZIOAK:** Kepa de Orbe

**ARGAZKIAK:** Ana Gonzalez Herrero- Artefacto estudio

**San Nikolas liburutegia**





# TOPONIMIA

Toponimia, grekotik datorren terminoa da eta bi hitz hauetatik dator: "topos", lekua eta "nimia", izena. Beraz, leku-izenei "toponimoak" esaten zaizkie. Baserri, auzo, erreka, mendi eta abarren izenak dira toponimoak.

Leku-izenak beharrezkoak dira gure eguneroko bizimoduan erreferentziak edukitzeko eta lekuen kokapen zehatzak jakiteko.



Mapetan, seinaleetan, liburuetan,... idatzita ikus ditzakegu eta ahoz ere erabiltzen ditugu. Ahozko eta idatzizkoaren arteko ezberdintasuna argi ikusten da adibidez "Jauregi" etxearen kasuan; inguruko euskaldunek *yeuri* edo *yauregi* esaten diote.

Leku-izenak denborarekin aldatu egiten dira. Etxeak, adibidez, berritu edo inguruan beste etxe batzuk egiten dira. Horren adibidea *Arteaga* etxea da, badirudi jatorrizko *Arteagari Arteagaurrekoa* deitu ziotela eta berriari *Arteagaosteikoa*.

Sarritan leku eta batez ere etxeen izenak bertan bizi diren pertsonen izenak, abizenak edo ezizenak izaten dira. Getxoren kasuan jatorrian toponimoa duten hitzak horrela banatu ditzakegu:

- Etxearen izaera: Jauregi, Torretxe, Uria.

- Etxearen kokapena: Goikoetxea, Barrenetxea, Zubiaga, Zubieta.

- Etxea deskribatzen dutenak: Murua, Ormaetxea, Ormatza, Tellaetxe, Etxeandia.

Beste toponimo batzuek natur inguruari buruzko informazioa ematen digute: Aretxeta, Elorriaga, Saratsaga, Gaztañaga. -AGA, -TZA eta -ETA atzizkiak toponimian oso emankorrak dira eta hirurek ugaritasuna adierazten dute:

**-AGA:** toponimian baino ez dirau bizirik pluralgile zaharrak.

**-TZA:** pluralgile garbia. Gaur egun bizirik dago: jendetza, papertza, hondartza...  
Toponimian ere oso ugaria da.

**-ETA:** atzizki hau toponimoetan baino ez da bizi. -AGA atzizkiaren parekoa da.

Hemen dituzu adibide batzuk:

AZKARRAGA-AZKARTZA-AZKARRETA; azkarra=astigarra='arce'(zuhaitza).

PAGOAGA-PAGATZA-PAGOETA; pago='haya' (zuhaitza)



Artea



Arteagaurre

Toponimo konposatuak ere badaude: Arzubiaga, Arrigunaga, Larrazabal.

Etxeak izendatzeko ohiturak denboran aldatu egin dira. Mendez mende ikus dezakegu:

- XVI. mendera arte izendapen askea, deskripzioak, ezaugarriak, ingurunea... ziren nagusi: Arteaga, Larrazabal.
- XVII. mendean etxearen kokalekuan (barria, goikoa...) oinarritzen ziren izenak jartzeko, beti etxe nagusiaren arabera. Goñi inguruan dauden baserriak, Goñibekoa, Goñibarria, Goñigoikoa, Goñitxu.
- XVIII. mendean -ENA atzizkia erabiltzeko ohitura zegoen (NORENA genitiboa). Jabearen izenari, abizenari edo ezizenari gehitzen zitzaion.

Zergatik orduan, eta ez lehenago? Alde batetik etxebizitzak pilatuta zeuden eta Arteagaosteikoa, Arteagabarra erakoak ez ziren nahikoak. Eta bestetik garai hartan hasi ziren administrazioak modu sistematikoan erroldak egiten. Adibidez, *Mariandresena* hitzak NORENA galderari erantzuten dio (Noren etxea da?). Beste adibide bat Portu Zaharrea dagoen *Peritzena* (Peresiena) etxea dugu.

- XIX. mendean euskararen galeraren hasiera eman zen: etxe-izen zaharrak, jabearen izena edo -ENA atzizkia ere baliatu zen. Adibidez: Arteaga Barria, Ugartena.
- XX. mendean izen gabeko etxe asko egon arren, jabeak jarritako izen modernoak dira nagusi: Lertegi, Jolaseta.

**ARIKETAK:**

1. Nondik dator TOPONIMIA hitza?
2. Aztertu zure kale edota auzoaren izena. Zein da bere esanahia? Zein hitzek osatzen dute?
3. Getxon izen askok landarediari egiten dio erreferentzia. Hitz bakoitzaren osagaiak aztertu eta eman esanahia.

Aretxeta:

Arteaga:

Lexarreta:

Makaleta:

Salsidu:

Saratsaga:

4. Jarri izen bakoitza zutabe egokian:

Arteaga, Domingoena, Getxo, Goñigoikoa, Ibarratzekoa, Jolaseta, Miguel, Villa Edurne, Peritzena, Ugartena.

XVI. mendera arte	XVII	XVIII	XIX	XX